

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### LURRALDE OREKAREN SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 235/2022 Erabakia, apirilaren 12koa. Onestea Garabide izeneko dirulaguntzen deialdia, lehia askearen bidez, 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan udalen berezko eskumenak baliatzeko inbertsioak finantzatzeko**

Lurralde Orekaren Sailari dagokio inbertsio planak kudeatzea, eta zehazki, Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren eta xedea bere eskumenekoak diren azpiegiturak edo obrak egiteko toki erakundeekin lankidetzan ekonomikoan aritzea duten bestelako planen edo programen izapidetzea, kudeaketa eta kontrol ekonomikoa egitea. Horri dagokionez, programa hau Arabako Foru Aldundia eta Arabako Lurralde Historikoko 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriak finantza lankidetzan aritzeko tresna oso egokia da, eta helburua udalerririk horietan inbertsioak egiteko finantzaketarako laguntzak ematea da.

Plan horrek lurralde historikoko udalerririk txikienei eragiten die, hain zuzen ere foru aldundiak laguntza ekonomiko gehiago eman behar dieten horiei, eta planaren bitartez beren finantza nahikotasuna bermatu nahi da. Lurralde Orekaren Saila landa guneko udalerririk txikien egoeraren jakitun da, eta lurralde kudeaketa eredu berri bat garatzen dago lurralde oreka eta kohesioa sustatzeko indarreko programak eta programa berriak indartzearen eta hobetzearen bitartez.

Eredu berri horretarako finkatu egin behar dira Obra eta Zerbitzuen Foru Plana, Obra Txikien programak eta Auzo Harremanak, larrialdi eta ezustekoen deialdia eta programa berriak, besteak beste landa guneko etxebizitzak birgaitzeko laguntzak eta udalerririk barruko garraioarentzako laguntzak, eta horiei guztiei gehitu zaie Garabide laguntza berri hau.

Aldundiaren xedeetako bat da lurralde oreka erdiestea, hau da, Arabako herritar guztiek berdintasunean izatea zerbitzu publikoetarako sarbidea. Gauzak horrela, egokitzat jotzen da azpiegitura txikiak eta ekipamenduak sortzeko, hobetzeko edo handitzeko jarduketak finantzatzea.

Aurreikusitako arabera, laguntza hau 2022ko ekitaldian emango da eta deialdi bakarrean bukatuko da. Beraz, erabaki hau administrazio egintza berezi eta anitza da, eta ondorioz, dirulaguntzaren deialdia administrazio egintza da eta ez xedapen orokorra. Horregatik beharrezkoa da xedapen orokorrak egiteko prozedura eta araudi eta genero inpaktua duten txostenak sortzeko gidak eta araudi teknikoak zuzentzerako aplikatzea. Azken horiek Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretu bidez onetsi ziren.

Deialdia idazteko kontuan hartu da martxoaren 22ko 3/2007 Legeak, emakumeen eta gizonen benetako berdintasunerakoak, eta otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, ezarritako arau esparrua.

Halaber, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen 11/2016 Foru Arauaren 7.3 artikuluan ezarritako arabera, deialdian kontuan hartu da euskararen erabilerearen faktorea Arabako Foru Aldundiak onetsitako hizkuntza normalizazioko politikaren esparruan, eta Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea betez.

Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko 52/1992 Foru Arauaren 40.5 artikuluan xedatuta dago foru diputatuaren eskumenekoa dela Diputatuen Kontseiluari proposatzea bere sailari atxikitako kontuei buruzko foru dekretuak onestea.

Horregatik, nahitaezko txostenak ikusita, Lurralde Orekaren Saileko diputatuaren proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau,

## XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Garabideko dirulaguntzei aplikatu beharreko deialdia onestea lehia askeko araubidean, udalaren eskumenak egikaritzeko inbertsioak finantzatzeko 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan, 3.360.000,00 eurotan. Deialdia espedienteari lotuta dago eta dekretu honen I. Eranskina da.

Bigarrena. Dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2022ko aurrekontuaren kargura emango dira, "10203. G/459100/76290102 Garabide laguntzak"; 10-65 lerroa, hurrengo honetan zehazten den urtekako banaketarekin:

URTEA	TALDEA	ZENBATEKOA	ZORPEKIN ERREFERENTZIA
2022	22.1.22	2.688.000,00 euros	105/1547-000 22.1.22
2023	22.3.23	672.000,00 euros	105/45-000 22.3.23

Hirugarrena. Aldatzea Foru Sektore Publikoaren 2020-2022 aldirako dirulaguntzen plan estrategikoaren aldaketa onesten duen Foru Gobernu Kontseiluaren 887/2021 Erabakiaren bidez onetsitako dirulaguntzen plan estrategikoaren eranskina, zeina irailaren 27ko 840/2019 Erabaki bidez onetsi baitzen, aldatuta erabaki honen II. Eranskin gisa atxikitzen den fitxa.

Laugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Bosgarrena. Erabaki hau behin betikoa da administrazio bidean, eta beronen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkez dezakezu zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera. Hori guztia, bat etorritz Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoarekin.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko apirilaren 12a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Lurralde Oreka Saileko diputatua*

**IRMA BASTERRA UGARRIZA**

*Lurralde Oreka zuzendaria*

**JESÚS MARÍA GUINEA DÍAZ DE OTALORA**

## I. Eranskina

### **Garabideko dirulaguntzen deialdia lehia askeko araubidean, udalaren eskumenak egikaritzeko inbertsioak finantzatzeko 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan**

#### **1. Xedea**

Laguntzen programa honen helburua da 5.000 biztanle baino gutxiago dituzten arabako udalerriek inbertsioak egitea sustatu eta bultzatzea. Inbertsio horiek Euskadiko toki erakundeen apirilaren 7ko 2/2016 Legean jasotako udalaren eskumen propioekin lotuta egongo dira.

#### **2. Erakunde onuradunak**

Dirulaguntzak jaso ahalko dituzten erakunde onuradun izan ahalko dira INEk egindako udal biztanleriaren zifraren azken argitalpen ofizialaren arabera 5.000 biztanle baino gutxiago dituzten arabako udalerriak.

Ezin dira onuradun izan Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak IV. tituluan adierazitako arau-hausteren bat dela-eta zehatu direnak, ez eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legeak eta Emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak jasotako kasuetan sartuta daudenak ere.

#### **3. Diruz lagundu daitezkeen jarduketak**

Honako jarduketa hauek lagundu ahalko dira diruz:

a) Bere eskumenerako nahitaezko zerbitzuetako inbertsioak, Toki araubidearen oinarrien 7/1985 Legearen 26. artikuluan aurreikusitakoak.

b) Eraikinak, lokalak eta lursailak eskuratzea, baldin eta obra edo zerbitzu publikoetarako erabiltzen badira.

c) Zerbitzu publikoetarako eraikinak eta lokalak birgaitzea, eraberritzea eta berritzea.

d) Industrialdeetan eta enpresa ekimenak hartzen dituzten lokaletan inbertsioak egitea eta eraikin publikoetan dendak jartzea sustatzeko jarduketak.

e) Aurrezpen energetikoan eta energia berriztagarria sortzen (modalitate eta jatorri guztietan) inbertsioak egitea, baldin eta udal titulartasuneko eraikinen, instalazioen edo zerbitzuen eskariari erantzuten dieten instalazioetan egiten diren inbertsioak badira.

f) Turismoari lotutako azpiegitura txikiak.

g) Herriguneak egokitzea eta urbanizatzea: zolatzeak, plazak, zerbitzu bat ematen duten eraikinetako irisgarritasuna, aparkalekuak, parkeak eta lorategiak, haurrek jolasteko parkeak, aisialdiko beste espazio batzuk, argiteria publikoa, hiri altzariak, markesinak, eta abar.

h) Bide publikoetako konponketa, mantentze eta/edo zolatze obrak egitea eta leku horiek garbitu eta sastrakak kentzea.

i) Elementu txikiak konpontzeko, birmoldatzeko, teilaberritzeko, ordeztzeko edo berritzeko obrak egitea.

#### **4. Hautatu daitezkeen inbertsioak eta gastuak eta baldintza osagarriak**

1. Udal aurrekontuen kapital gastuetan jasota dauden eta aurreko apartatuarekin lotuta dauden inbertsioak aukeratu ahalko dira. Beraz, ez dira hautagarriak izango gastu arruntak (langileak, funtzionamendua edo gastu orokorrak). Hautagarria eta finantzagarria izango da jasandako BEZa, berreskuratu eta konpentsatu ezin daitekeenean.

2. Hautatu ahalko diren gastuak izango dira programa honen helburuak lortzeko beharrezkoak direnak. Kontzeptu hauek izan ahalko dituzte: udalaz kanpoko langile tekniko eskudunek egitea obraren zuzendaritza fakultatiboko kostuekin eta jarduketekin lotutako proiektu teknikoak eta segurtasuna eta osasuna koordinatzea. Ez dira barne egongo lizentziak, tasak, zergak edo tributuak.

3. Jarduketaren xedea zolatze-obrak direnean edo barnean hartzen dituenean, aurrekontua edo balioespena behar bezain zehatza izan beharko da, horietatik zer metro koadrori eragingo dien eta erabilitako materialari buruzko informazioa lortu ahal izateko.

Kasu honetan, honako modulu hauek ezartzen dira:

- Asfaltozko aglomeratua: 35,20 euro/m<sup>2</sup>.
- Hormigoia edo beste batzuk: 44,92 euro/m<sup>2</sup>.

4. Inbertsioak egiteko erabiliko diren lursail edo higiezinak udal-titulartasunekoak izan beharko dute. Titulartasuna udalarena ez bada, udalerrri eskatzaileak inbertsioa egin behar zaion higiezinaren erabileraren lagapen-hartzailea izan beharko du, gutxienez 10 urtez, laguntza-eskaera aurkeztu ondoren.

5. Zerbitzu publikoetarako eraikinak, lokalak edo lursailak eskuratzeko aplikatuko den dirulaguntzaren ehunekoa Arabako Foru Aldundiko zerbitzu teknikoek egindako tasazio aurrekontuan ezarritakoa izango da, salbuetsiz tasazio aurrekontu hori eskuratzearen kostu erreala baino handiagoa izatea. Kasu horretan, ehunekoa kostu errealean aplikatuko da.

6. Diruz lagundu ahal diren gastuak izango dira, soilik, zalantzarik gabe diruz lagundutako inbertsioaren izaerarekin bat datozenak eta behar-beharrezkoak direnak, eta BEZa, baldin eta berreskuratu ezin bada.

7. Deialdi honetako dirulaguntzak bateragarriak izango dira xede bera duten eta Arabako Foru Aldundiaren edo erakunde publiko edo pribatuen, estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko organismoen laguntza programetakoak diren dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabideekin.

8. Diru-laguntzaren zenbatekoa ez da inola ere izango diruz lagun daitekeen aurrekontua baino handiagoa, ez bakarrik, ez beste diru-laguntza eta diru-sarrera batzuekin batera.

9. Erakunde onuradunek diruz lagundutako jarduketak behar bezala eta erabat gauzatzeko behar diren izapide guztiak egin behar dituzte eta baimen guztiak lortu behar dituzte, lanak hasten direnetik behin betiko jaso arte.

10. Kontratazio publikoaren eta diru-laguntzen arloko legeria betetzea ezinbesteko baldintza izango da. Zehazki, 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa, zeinaren bidez Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen baitira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak eta horiek garatzeko araudia, bai eta Arabako Lurralde Historikoko Diru-laguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua eta horrekin lotutako araudia ere.

11. Toki erakundeek, dirulaguntza hauen onuradun izan daitezkeenek, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legeak 3. artikuluan ezartzen duenaren arabera jokatu behar dute, eta bertan jasotako oinarrizko printzipioak bete behar dituzte. Horrez gainera, lege horretan bertan esleitzen zaizkien eskumenen eta egitekoen arabera dagozkien betebeharrak bete behar dituzte. Hain zuzen ere, diruz lagundutako inbertsioa egikaritzeko sinatzen diren administrazio kontratuetan Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legearen 20.2 eta 3. artikulua aplikatuko dira. Ondorioz, kontratua betetzeko baldintzen artean adjudikaziodunaren betebeharrak hau ezarriko da: prestazioa egitean emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko neurriak aplikatu beharra, kontratuen legeriarekin bat etorritik, baldin eta organo eskudunak ezarri badu kontratazioan neurri hori aplikatu behar dela.

12. Halaber, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen arabera, adjudikaziodunak hizkuntza ofizial bien tratamendu eta erabilera egokiak bermatu beharko ditu, eskumena duen organoak uste badu kontratuaren xedeak hala eskatzen duela.

13. Inbertsioak eskatutako helbururako erabili beharko dira gutxienez bukatzen direnetik aurrera zenbatzen hasita 10 urteko epean.

## 5. Dirulaguntzen homidura eta zenbatekoa

Deitutako dirulaguntza programaren gehieneko zenbatekoa 3.360.000,00 eurokoa izango da eta Arabako Foru Aldundiaren 2022rako "10203. G/459100/76290102 Garabide Laguntzak" aurrekontuari egotziko zaio, urtekako hurrengo banaketarekin:

URTEA	TALDEA	ZENBATEKOA
2022	22.1.22	2.688.000,00 euro
2023	22.3.23	672.000,00 euro

Inbertsiorako edo inbertsio multzorako erakunde bakoitzak jaso ahalko duen dirulaguntzaren gehieneko aurrekontua 100.000,00 eurokoa izango da, BEZa barne.

Erakunde bakoitzarentzako gehieneko dirulaguntza hauxe izango da:

ERAKUNDEAK	DIRULAGUNTZAREN EHUNEKOA
1.000 biztanle edo gutxiago dituztenak	%80
1.001 eta 1.500 biztanle bitartean	%70
1.501 eta 5.000 biztanle bitartean	%48

## 6. Emakidaren prozedura, dirulaguntzak emateko irizpideak eta dirulaguntzen zenbatekoa

Dirulaguntzen emakida lehia askeko araubidean egingo da. Laguntzak dirulaguntza eskarien aurkezpen ordenaren arabera esleituko dira, deialdiaren saldoa bukatu arte.

Diruz lagundu daitekeen gehieneko ehunekoa inbertsioaren kostuaren arabera kalkulatu da. Inbertsioaren kostua da diruz lagundu daitekeen aurrekontua gehi berreskuratu ezin daitekeen BEZa.

## 7. Epeak eta eskariak aurkeztea

1. Dirulaguntzen eskaerak aurkezteko epea deialdia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egu-netik aurrera zenbatzen hasiko da eta irekita egongo da aurrekontu esleipena bukatu arte edo bukatzen ez bada, 2022ko ekainaren 15eko 23:59ra arte. Aurrekontu esleipena bukatzen baldin bada, webgune honetan argitaratuko da: [www.araba.eus](http://www.araba.eus).

Eskaera nahitaez Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan aurkeztu beharko da (<https://egoitza.araba.eus/eu/-/garabide-dirulaguntzak>) eta inbertsioaren kontzeptua eta inbertsioaren kostu ekonomikoaren aurrekontu bereizia agertu beharko dira.

2022ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako jarduketetarako inbertsioak eskatu ahalko dira.

Horrelako laguntzak jaso nahi dituzten udalek eskaria aurkeztu beharko dute izapide elektronikoko inprimakian.

Aplikazioan dokumentazioa eta eskatutako datuak jaso ondoren eta laguntzaren eskaria eginda, aplikazioak eskariaren erregistro eguna eta orduaren ziurtagiria emango ditu, eta beraz, une horretatik aurrera, hasiera batean laguntza eskaria eginda eta erregistratuta geratuko da.

Berariazko izapidearen bidez aurkeztu behar izatearen gaia alde batera utzita, bidali beharreko dokumentazioa, 10 MBtik gorakoa izango balitz, Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean aurkeztu ahal izango da, edo harekin hitzarmena sinatuta duten toki-erakundearen erregistro orokorretan, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legean horri buruz xedatutakoari kalterik egin gabe, bai eta maiatzaren 3ko Foru Kontseiluaren Foru Kontseiluaren Araudian horri buruz araututakoari kalterik egin gabe ere (37/2011 Foru Dekretua, maiatzaren 3koa, Arabako Foru Aldundiarena). Euskarri magnetikoan (CD edo antzekoa) edo paperean aurkeztu ahal izango da.

2. Eskaerak osorik bete ezean edo deialdi honetan adierazitako agiriren bat falta izanez gero, erakunde interesdunari eskatuko zaio hamar egun balioduneko epean falta diren datuak eta agiriak aurkezteko. Era berean, jakinaraziko zaio adierazitako epean agiri edo datu horiek aurkeztu ezean, eskaerari uko egin diola ulertuko dela, eta beraz, eskaera artxibatu egingo dela.

Aurreko oinarrian ezartzen diren ondorioetarako, osorik ez dauden eskaerak ez aurkeztuztat joko dira eskaria erabat zuzendu arte. Orduan, behin betikotzat joko dira.

Dokumentazioa paperean aurkeztuz gero, Arabako Foru Aldundiko erregistroan dokumentu guztiak sartzeko unean aurkeztuztat joko da eskabidea.

3. Inbertsio bakoitzak gehienez ere 100.000,00 euroko dirulaguntza jaso ahalko du eta erakunde bakoitzak gehienez ere eskaera hauek aurkeztu ahalko ditu:

ERAKUNDEAK	GEHIENEO PROIEKTUAK
1.000 biztanle edo gutxiago dituztenak	4
1.001 eta 1.500 biztanle bitartean	4
1.501 eta 5.000 biztanle bitartean	4

#### 8. Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa

1. Dirulaguntza jaso dezakeen kontzepturako eskatutako edo emandako laguntzen ziurtagiria, edo hala badagokio, helburu bererako beste dirulaguntzarik eskatu edo jaso ez izanaren ziurtagiria. Horren barne egongo dira erakunde onuradunak aurretik helburu eta xede bererako jasotako dirulaguntzak, proiektu beraren fase edo alderdi ezberdinak izan arren.

2. Inbertsioak egingo diren higiezin eta/edo lursailen titulartasuna egiaztatzea eta higiezin eta/edo lursail horien emakida hartzailea izanez gero, emakida eta epeak egiaztatzen dituen titulua edo agiri publikoa, dirulaguntza hauen deialdiaren 4.4 puntuan aurreikusitako ondorioetarako.

3. Egingo diren jarduketan memoria baloratua eta ondasunen egungo egoeraren argazkiak.

4. Udaleko Osoko Bilkuraren edo eskaera onesteko erakunde eskuduneko organoaren erabakiaren ziurtagiria.

Nolanahi ere, Lurralde Orekaren Sailak aurkeztutako eskaerak behar bezala ulertzeko eta ebaluatzeko behar dituen informazio osagarri guztiak eskatu ahal izango ditu.

#### 9. Deialdiaren ebazpena

Deialdi honetan xedatutakoa betetzen dela egiaztatzeko, eskaerak lurralde orekaren zuzendaria gidatutako batzorde batek aztertuko ditu. Batzorde horretako kide izango dira Lurralde Orekaren Zuzendaritzari atxikitako teknikari bat eta idazkari lanak gauzatuko ditu Toki Administrazioaren eta Larrialdien Zerbitzuko buruak.

Batzorde horrek laguntza emateko proposamen txostenak idatziko ditu, eta gastuak baimendu, xedatu eta antolatzeko gaitutako organoak ebatziko ditu, eskaera emanez edo ukatuz, gehienez bi (2) hilabeteko epean, eskaerak aurkezten diren hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Epe horretan esanbidezko ebazpenik ematen ez bada, erakunde onuradunek ezetsizat jo ahal izango dute eskaera.

Dirulaguntzen emakidaren hiru ebazpen eman ahalko dira gehienez, aurkeztutako eskaeren erritmoaren arabera.

Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. artikuluko b) apartatuko 1. paragrafoan xedatutakoarekin bat, lehiaketa prozedurako ebazpena Arabako Lurralde Historikoko aldizkari ofizialean argitaratuko da eta argitalpenak jakinarazpen ondorioak izango ditu. Hala ere, erakunde bakoitzari ebazpena osorik bidaliko zaio. Edonola ere, jakinarazpen datatzat hartuko da egiten den lehena.

Eskatzaileari ez zaio entzunaldi izapiderik aitortuko, eskatzaileek aurkeztutako gertaerak eta agiriak baino ez baitira kontuan hartuko ebazpenean.

Dirulaguntzak emateko ebazpenean jaso beharko da dirulaguntza zer erakunde onuraduni eman zaion, eta espresuki adieraziko da gainerako eskaerak ezetsi egin direla. Ebazpen hori erakunde onuradunei jakinaraziko zaie Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 43. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Ebazpenak administrazio bidea bukatuko du eta horren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahalko da Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako Epategietan jakinarazten denetik aurrera zenbatzen hasita 2 hilabeteko epean, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluan xedatutakoarekin bat eta lege beraren 25.1 artikuluekin lotuta.

Erakunde onuradunek ebazpenaren jakinarazpena jasotzen dutenetik 10 egun baliodunetan dirulaguntzari idatziz uko egiten ez badiote, ebazpenean ezarritakoa onartu dutela pentsatuko da.

#### **10. Inbertsioa egikaritzea eta erakunde onuradunaren betebeharrak**

Arabako Foru Aldundiak emandako laguntza bakar-bakarrak diruz lagundutako inbertsioen kostuak finantzatzeko erabiliko da.

Erakunde onuradunak inbertsioan sortu ahalko diren eta dirulaguntzarekin lotuta dauden gertakizunen berri eman beharko du.

Erakunde onuradunak lortu beharko ditu beharrezko lizentziak edo baimenak.

Foru Aldundiak programa honetan diruz lagundutako jarduketan legezketasuna egiaztatatu ahal izango du, eta erakunde onuradunak ahalbidetu egin beharko ditu aldundiak egin nahi dituen kontrolerako eta ikuskaritzarako jarduera guztiak. Kontrolak gauzatzen direnean aldundiarentzat eskuragarri egon beharreko agiriak hauek dira:

- Inbertsioen gastu eta ordainketa ziurtagirien jatorrizkoak eta kopia konpultsatua.
- Inbertsioarekin lotutako bestelako agiriak edo aurrekariak.

#### **11. Xedea gauzatzeko eta obligazioa onartzeko epea**

1. Dirulaguntzaren xede den proiektua edo jarduketa guztiz gauzaturik eta hartutako obligazioak onartuta egon behar dira 2023ko martxoaren 31 baino lehen.

2. Dirulaguntzak justifikatzeko azken eguna 2023ko apirilaren 30a izango da.

#### **12. Onuradunak dirulaguntza jasotzerakoan lortu nahi zen helburua lortu izana justifikatzeko modua eta epea, eta ordainketa**

Ordainketak izendunak izango dira erakunde onuradun bakoitzarentzat.

Diru-laguntzak honela ordainduko dira:

– Diru-laguntza emateko zenbateko osoaren ehuneko 80, erakundeak kontratua edo, hala badagokio, kontratuaren esleipen-ebazpena aurkeztu ondoren. Agiri horiek aurkezteko azken eguna 2022ko azaroaren 30a izango da.

– Gainerako ehuneko 20a onuradunak emandako diru-laguntzaren zenbatekoaren fakturak eta ordainagiriak aurkezten dituztenean. Ordainketa hori 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera egingo da.

Dirulaguntzen justifikazioa justifikatutako kontu sinplifikatua izango da, eta hauek osatuko dute:

1.) Dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak bete direla egiaztatzen duen txostena, egindako inbertsioak eta lortutako emaitzak adierazita. Jarduerak egin izana justifikatzeko memoria; agiri horretan jaso beharko dira eskaeran aurkeztutako aurrekontuko partidak eta laguntzaren xede den inbertsioa gauzatzeko egindako gastuak eta kostu hautagarriak, eta benetako gauzatzearekiko alderaketa. Era berean, memoria horretan adierazi beharko da zein hizkuntzatan egin den hedapena edo publizitatea.

2.) Egindako inbertsioaren gastu guztien zerrenda sailkatu bat, honako hauek adierazten dituen: hartzekoduna, gastu agiriaren edo fakturaren zenbakia, zenbatekoa, jaulkitze data eta, hala badagokio, ordainketaren data. Obra-ziurtagiriak, fakturak edo agiri baliokideak aurkeztu beharko dira eta 1.000 euro baino gehiagoko gastuen ziurtagiriak eta obren jasotze akta baita ere.

3.) Diruz lagundutako inbertsioa finantzatu duten bestelako diru sarrera eta dirulaguntzen xehetasunak, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

4.) Hala badagokio, itzulketaren ordainketa gutuna, aplikatu ez diren soberakinen kasuan, baita horietatik eratorritako interesena ere.

### **13. Babesa**

Dirulaguntza jaso duen inbertsioa dela-eta egiten diren argitalpenetan, liburuxketan edo bestelako publizitate modu guztietan Arabako Foru Aldundiko Lurralde Orekaren Sailak emandako dirulaguntzaren berariazko aipamena egin behar da. Horrez gainera, generoaren ikuspegitik hizkuntza zuzen erabiltzen dela bermatuko da, eta informazioa emakume eta gizonei parekidesunez iristeko mezu eta kanal egokiak erabiliko dira.

Inbertsioa egikaritzen hasten direnetik amaitu eta 6 hilabete igaro arte, horri buruzko informazioa ematen duen kartela (ondo ikusteko modukoa) egon beharko da inbertsio lekutik hurbil. Kartela Lurralde Orekaren Sailak emango du.

### **14. Dirulaguntza itzultzea**

Dirulaguntzaren zenbatekoak itzuli beharko dira Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzen 11/2016 Foru Arauaren 35. artikuluan eta Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 36. artikuluan ezarritako kasuetan.

Jaso ondoren itzuli beharreko dirulaguntzak zuzenbide publikoko sarrera izango dira, eta Ekonomia eta Aurrekontu Araubidearen abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauak II. tituluko I. kapituluan ezarritakoaren arabera kobratuko dira.

Itzulketa eginez gero, Arabako Foru Aldundiak eskumena izango du erakundearen parte-hartzeen zenbatekoa gordetzeko Arabako Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsean.

Ez-betetzeen inguruabarrak Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzen 11/2016 Foru Arauaren 35. artikuluan eta Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 36. artikuluan jasota daude.

### **15. Egiaptapena**

Erakunde onuradunek konpromisoa hartzen dute beraiek egindako inbertsioekin loturik dauden eta Lurralde Orekaren Sailak eskatzen dizkien datu eta agiri guztiak emateko. Era berean, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak, Kontuen Epaitegiak edo eskumena duten beste erakundeek eskatzen dieten informazio guztia ere eman beharko dute.

### **16. Erantzukizunak**

Erakunde onuradunek beren gain hartzen dute inbertsioa egitearen erantzukizuna, eta hura garatzeko indarrean dagoen legediak eskatzen dituen baimenak eskatuko dituzte.

### **17. Aldaketak**

Onetsitako dirulaguntza berriro aztertuko da, gastua finantzatzeko beste erakunde batzuek egindako ekarpen osagarriak edo beste diru sarrera batzuk ere erabili direla jakiten bada. Horrelakoetan, diruz lagundutako inbertsioaren edo inbertsioen gastuen eta diru sarreraren arteko likidazioa egin eta hortik ateratzen den emaitza defizitarioa izango da dirulaguntzaren behin betiko gehieneko zenbatekoa.



Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetan aldaketaren bat gertatzeak eta, kasu guztietan, edozein entitate publiko edo pribaturen gai bererako dirulaguntzak edo laguntzak eskuratzeak, emakida ebazpena aldatzea ekarriko du, eta dirulaguntzaren zati bat edo guztia itzultzea.

Behin dirulaguntza onetsitakoan, hura emateko arrazoi izan ziren egitatezko inguruabarrek hura aldatzea eragiten badute, Lurralde Orekaren Saileko diputatuak, dirulaguntzaren onuradunak arrazoituta proposatuta, bere esku izango du dirulaguntza aldatzea dagokion foru aginduaren bidez.

### 18. Interpretazioa

Deialdi honen interpretazioaren inguruan sortzen diren zalantzak Arabako Foru Aldundiko Lurralde Orekaren Sailak ebaziko ditu.

### 19. Baliabideak

Deialdi hau eta beren ondoriozko administrazio egintza guztiak aurkaratu ahal izango dira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak arautzen dituen kasuetan eta bertan finkatzen den moduan.

### 20. Publizitatea

Deialdi hau Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

### 21. Aplikatu beharreko araudia

Deialdi honetan xedatzen ez den edozertarako honako arau hauek aplikatuko dira: Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen 11/2016 Foru Araua; Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren Erregelamendua onesten duena; Arabako Lurralde Historikoko Ekonomia eta Aurrekontu Araubidearen abenduaren 18ko 53/1992 Foru Araua; indarrean dagoen aurrekontu antolamenduari buruzko foru araua; Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea eta aplikagarriak diren gainerako arauak.

## II. Eranskina

Funtzio-Arloa: 0472.

Dirulaguntza lerroa: Garabide proiektua.

Ardatz estrategikoa: Arabako Lurralde Garapena.

Saila: Lurralde Oreka.

Aurrekontu partida: 10202. G/459100/76290102 Laguntzak Garabide.

2020	2021	2022	TOTAL
0,00	0,00	2.688.000,00	2.688.000,00

Dirulaguntzaren xedea: Bizi kalitatea eta tokiko zerbitzu publikoak hobetzeko inbertsioa.

Onuraduna: 5.000 biztanletik beherako udalerrriak.

Emateko prozedura: Doako adostasuna.

Dirulaguntzaren oinarrizko lerroak: Oinarrizko azpiegiturak eta ekipamenduak.

Baterako finantzaketa: Ez dago.

Jarraipen prozedura eta adierazleak: Pertsona onuradunak.